| | |
|---|---|
| **8. ERANSKINA: ENPLEGUA SAILA** | **ANEXO 8: ÁREA DE EMPLEO** |

| | |
|---|---|
| **8.1. ENPRESEN LAGUNTZA PROGRAMA, LANPOSTU BERRIAK SORTZEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRI-ARAUAK.** | **8.1. BASES REGULADORAS DE LA CONCESION DE SUBVENCIONES A EMPRESAS POR LA CREACION DE PUESTOS DE TRABAJO.** |
| **1. Xedea** | **1. Objeto** |
| Deialdi hau aplikatuko zaie Arrasate herrian enplegu egonkorra sortzen duten enpresa ekimenei eta 2006ko otsailaren 27an Udalbatzarrean onartutako enpresentzako dirulaguntzak programaren araudira egokitzen direnei. | La presente convocatoria será de aplicación para aquellas iniciativas empresariales generadoras de empleo estable que se promuevan en el término municipal de Arrasate, y que se ajusten al Reglamento regulador del programa de ayuda a empresas, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento de Arrasate con fecha 27 de febrero de 2006. |
| **2. Laguntzak norentzat diren** | **2. Destinatarios/as de las ayudas.** |
| Kasu hauetako batean dauden enpresentzat izango dira laguntzak: | Serán destinatarias de estas ayudas aquellas empresas que se encuentren en alguno de los siguientes supuestos: |
| a) Legez eratutako enpresa berriak, 15 langile baino gutxiagokoak, laguntza programa honek ezarritako baldintzak betetzen dituenak, lantokia Arrasaten dutenak, eta enplegu egonkor bat edo gehiago sortzen dutela. Enplegu egonkortzat hartuko da enpresaren titular bati dagokiona, edota lan kontratazio mugagabeari eta egun osokoari lotutako langile bati dagokiona. | a) Empresas nuevas constituidas legalmente, con menos de 15 trabajadores, que cumplan los requisitos exigidos por este programa de ayudas , con centro de trabajo en Arrasate, que generen desde 1 empleo estable, entendiéndose como tal a aquél correspondiente al titular de la empresa, o bien a aquél correspondiente a un o una trabajador/a sujeto/a a contratación laboral indefinida y a jornada completa. |
| Kasu hauetan ez dute aukerarik izango laguntzak lortzeko: | Quedan excluidos de la posibilidad de obtener estas ayudas los siguientes supuestos: |
| ▪ Tabernak edo antzeko jarduera nagusia duten enpresak. | ▪ Enpresas cuya actividad principal sea la de bar o similares |
| ▪ Enpresa berria abian jarri aurreko 12 hiletan jarduera berean edo antzekoan, titular moduan, banaka edo sozietatean, aritutako promotoreak edo dirulaguntzaren onuraduntasuna erakarri dezaketen langileak, zirkunstantzia hori lan kooperatibetako bazkide moduan gertatu ezik. Enpresak eskuratu ahal izango ditu | ▪ Promotores/as o sujetos aspirantes a subvención que hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a la puesta en marcha de la nueva empresa, salvo que hubieran concurrido en dicha circunstancia como socios de cooperativas de trabajo. La |

| | |
|---|---|
| laguntzak gainontzeko pertsonalagatik, araudi honen baldintzak betez gero. | empresa podrá optar a las ayudas por el resto de su personal, siempre que éste reúna las condiciones exigidas por este Reglamento. |
| ▪ Bezero bakarra duten enpresak (fakturazioaren %75 denean). Jarduerareren lehen 12 hiletatik aurrera hartuko da kontuan gorabehera hori. | ▪ Empresas con un único cliente (que suponga el 75% de la facturación). Esta circunstancia se tendrá en cuenta a partir de los 12 primeros meses de ejercicio de la actividad. |
| ▪ Lokal eta jarduera beran enpresa berria sortu baino 12 hilabete lehenago ari ziren beste batzuen titulartasun aldaketa hutsaren ondorioa direnak.<br>▪ Administrazioarekin daukaten kontratuen ondoriozko fakturazio orokorraren %70 edo gehiagokoa duten enpresak. | ▪ Empresas surgidas a partir del mero cambio de titularidad de otras ya existentes en el mismo local y misma actividad en los 12 meses anteriores a dicho cambio.<br>▪ Empresas cuyo principal volumen de facturación (≥70%) esté ligado a contratos con la Administración. |
| ▪ Partizipazio publikoa duten enpresak | ▪ Empresas con participación pública. |
| ▪ Enpresaren kapital sozialaren jabetza %50etik gora laguntza hauek eskuratzeko baldintzak betetzen ez duten beste enpresa edo erakunde batzuena denean. | ▪ Empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a otras empresas o entidades que no cumplan los requisitos necesarios para acceder a estas ayudas. |
| b) Lehendik dauden enpresak, Arrasaten dutenak lantokia, 15 langile baino gutxiagokoak, eta gutxienez ere 3 lanpostu berri sortzen dutenak, edo langileen plantilla %100ean handitzen dutenak, araudi hau indarrean jartzen duen deialdian ezartzen den aldian, betiere izaera egonkordunak, eta halakotzat hartuko dira enpresaren bazkide-langile berriei dagozkienak, edota lan kontratazio mugagabekoa dutenak, eta aurreko hiru urtealdietakoen batezbestekoari buruz plantillaren gehikuntza garbia erakarri badute. | b) Empresas ya existentes, con centro de trabajo en Arrasate, de menos de 15 operarios, y que creen como mínimo 3 nuevos puestos de trabajo a jornada completa o el equivalente a un incremento de la plantilla del 100% dentro del periodo de referencia señalado en esta convocatoria, con carácter estable, entendiéndose como tales a los correspondientes a nuevos socios-trabajadores de la empresa, o bien a aquéllos sujetos a contratación laboral indefinida, y que supongan un incremento neto de plantilla respecto a la media de los tres ejercicios anteriores. |
| Ez dira halakotzat hartuko hauek: | Quedan excluidas de esta consideración: |
| ▪ Tabernak edo antzeko jarduera nagusia duten enpresak. | ▪ Enpresas cuya actividad principal sea la de bar o similares |
| ▪ Enpresan hasi aurreko 12 hiletan jarduera berean edo antzekoan, titular moduan, banaka edo sozietatean, aritutako dirulaguntzaren onuraduntasuna erakarri dezaketen langileak dituzten enpresak, zirkunstantzia hori lan kooperatibetako bazkide moduan gertatu ezik. Enpresak eskuratu ahal izango ditu laguntzak | ▪ Empresas cuyos sujetos aspirantes a subvención hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a su incorporación en dicha empresa, salvo que hubieran concurrido en dicha circunstancia como socios de cooperativas de trabajo. La |

| | |
|---|---|
| gainontzeko pertsonalagatik, Araudi honen baldintzak betez gero. | empresa podrá optar a las ayudas por el resto de su personal, siempre que éste reúna las condiciones exigidas por este Reglamento. |
| ▪ Bezero bakarra duten enpresak (fakturazioaren %75 denean). | ▪ Empresas con un único cliente (que suponga el 75% de la facturación). |
| ▪ Administrazioarekin daukaten kontratuen ondoriozko fakturazioa fakturazio orokorraren %70 edo gehiagokoa duten enpresak. | ▪ Empresas cuyo principal volumen de facturación (≥70%) esté ligado a contratos con la Administración. |
| ▪ Partizipazio publikoa duten enpresak | ▪ Empresas con participación pública. |
| ▪ Enpresaren kapital sozialaren jabetza %50etik gora laguntza hauek eskuratzeko baldintzak betetzen ez duten beste enpresa edo erakunde batzuena denena. | ▪ Empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a otras empresas o entidades que no cumplan los requisitos necesarios para acceder a estas ayudas. |
| **c)** Merkataritza arloko enpresak, 15 langile baino gutxiagokoak, araudi hau indarrean jartzen duen deialdian ezartzen den aldian salmenta establezimentu berria Arrasaten zabaldu dutenak, lanpostu egonkorrak bertan sortzen dutenak, halakotzat hartuta enpresaren bazkide-langile berriei dagozkienak, edota lan kontratazio mugagabekoa dutenak. | **c).** Comercios con menos de 15 trabajadores, que abran nuevos establecimientos en Arrasate en el periodo de referencia que marque la convocatoria anual de este programa y que creen nuevos puestos de trabajo estables en dichos comercios, entendiendo como tales aquéllos correspondientes a los titulares de la empresa, o bien a aquéllos correspondientes a trabajadores/as sujetos/as a contratación laboral indefinida y a jornada completa. |
| Ez dira halakotzat hartuko hauek: | Quedarán excluídas de esta consideración: |
| • Tabernak, zerbitzu profesionalak, finantzieroak, inmobiliarioak edo antzekoak. | ▪ Enpresas cuya actividad principal sea la de bar o similares |
| • Enpresan hasi aurreko 12 hiletan jarduera berean edo antzekoan, titular moduan, banaka edo sozietatean, aritutako promotoreak edo dirulaguntzaren onuraduntasuna erakarri dezaketen langileak . Enpresak eskuratu ahal izango ditu laguntzak gainontzeko pertsonalagatik, Araudi honen baldintzak betez gero. | • Promotores/as o sujetos aspirantes a subvención que hayan ejercido como titulares, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores comenzar a trabajar para la empresa solicitante. La empresa podrá optar a las ayudas por el resto de su personal, siempre que éste reúna las condiciones exigidas por este Reglamento. |
| ▪ Bezero bakarra duten enpresak (fakturazioaren %75 denean). | ▪ Empresas con un único cliente (que suponga el 75% de la facturación). |
| • Administrazioarekin daukaten kontratuen ondoriozko fakturazioa, fakturazio orokorraren %70 edo gehiagokoa duten enpresak. | ▪ Empresas cuyo principal volumen de facturación (=ó>70%) esté ligado a contratos con la Administración. |
| • Partizipazio publikoa duten enpresak. | ▪ Empresas con participación pública. |
| ▪ Enpresaren kapital sozialaren jabetza %50 etik gora laguntza hauek | ▪ Empresas cuyo capital social pertenezca en más del 50% a otras empresas o |

| | |
|---|---|
| eskuratzeko baldintzak betetzen ez duten beste enpresa batzuena denean. | entidades que no cumplan los requisitos necesarios para acceder a estas ayudas. |
| **3. Erreferentzia aldia** | **3. Periodo de referencia** |
| Programa honetan araututako laguntzak lortzeko betebeharrak eta baldintzak bete egin beharko dira 2007ko uztailaren 11etik eskaerak aurkezteko deialdi honetan ezarritako epea amaitu bitartean (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 2 hilabeteko epea). | Los requisítos y condiciones exigidas para optar a las ayudas reguladas en el presente programa deberán estar cumplidas en el periodo comprendido desde el 11 de julio de 2007 hasta la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes prevista en esta convocatoria (2 meses contados a partir de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa). |
| **4.Eman beharreko laguntzak** | **4. Ayudas a conceder.** |
| ***a) Laguntzen izaera*** | ***a) Carácter de las ayudas.*** |
| Dirulaguntza izaera izango dute eman beharreko laguntzak. | Las ayudas a conceder tendrán carácter de subvención. |
| ***b) Berariazko baldintzak*** | ***b) Requisitos específicos.*** |
| Gutxienez hiru urtean mantendu behar dira laguntza jasotzeko dauden gorabeherak, dirulaguntza ematea erabakitzen den unetik kontatzen hasita.. | Las circunstancias que den lugar a la percepción de estas ayudas deberán mantenerse un mínimo de tres años, contados a partir del momento en que se resuelva conceder la subvención. |
| ***c) Zenbatekoa*** | ***c) Cuantía.*** |
| Sortutako lanpostu egonkor bakoitzeko jaso beharreko dirulaguntzaren kopurua, honela kalkulatuko da: | La cuantía de la subvención por puesto de trabajo estable creado, se obtendrá de la siguiente forma: |
| ♦ Oinarrizko kopurua eta kopuru aldakorra batuta aterako da amaierako kopurua, eta, hala badagokio, oinarri-arau hauetan ezarritako kenkariak ezarriko zaizkio.<br>♦ Enpresa sortu berrien kasuan, enpresa batean lanpostu bat baino gehiago sortzeagatik ematen bada dirulaguntza, bigarren eta hurrengo lanpostuengatik emandako kopurua ezartzen den oinarrizko kopuruaren %50 izango da.<br>♦ Lehendik dauden enpresen kasuan, subentzionatu beharreko kopuruaren %50eko murrizpena ezarriko zaie, programa honetan finkatutako laguntzak eskuratzeko eskubidea duten lanpostu berri guztiengatik. | ♦ La cantidad final se calculará sumando la cantidad base y las cantidades variables, efectuando asimismo, si proceden, las deducciones previstas en las presentes bases.<br>♦ En los casos de empresas de nueva creación, en los que se conceda subvención por más de un puesto de trabajo a una misma empresa, el cálculo de la cuantía para el puesto segundo y sucesivos partirá del 50% de la cantidad base que finalmente se establezca.<br>♦ En el caso de las empresas ya existentes, se aplicará asimismo, una reducción del 50% a la cantidad base a subvencionar, para todos los nuevos puestos de trabajo creados con derecho a las ayudas establecidas en este programa. |
| **A.- Oinarrizko kopurua:** oinarrizko kopuruaren %100a, gehienez ere, 3.600 €koa izango da sortutako lanpostu bakoitzarengatik, | **A.-** Cantidad base: El 100% de la cantidad base será como máximo de 3.600 € por puesto de trabajo generado, y, en función de |

| | |
|---|---|
| eta, aurrekontuaren arabera, murriztu ahal izango da, dagokion hainbanaketa ezarriz. Onartzen den azken oinarrizko kopuruari ondoko faktoreen ponderaziotik lortzen den koefiziente zuzentzailea ezarriko zaio: | las disponibilidades presupuestarias, podrá ser objeto de reducción, a través del oportuno prorrateo. A la cantidad base que finalmente se apruebe se aplicará un coeficiente corrector que se obtiene ponderando los siguientes factores: |
| 1.- Egindako inbertsioaren bolumenaren araberakoa: | 1.- Por razón del volumen de inversión realizada: |
| - 60.000 €tik gorakoa..................................%100<br>- 30.000 € eta 60.000 € bitartean....................%80<br>- 12.000 € eta 30.000 € bitartean....................%70<br>- 6.000 € eta 12.000 € bitartean .....................%50<br>- 6.000 € baino inbertsio txikiagoa egiten duten enpresek ez dute programa honen dirulaguntzarik jasoko. | - Superior a 60.000 € 100%<br>- Entre 30.000 y 60.000 € 80%<br>- Entre 12.000 y 30.000 € 70%<br>- Entre 6.000 y 12.000 € 50%<br>- Las empresas que realicen una inversión inferior a 6.000 € no optarán a la subvención de este programa |
| Inbertsioen konputuan sartuko dira makinaria, ekipo, instalazio eta softwarera bideratutakoak, eta konputu horretatik kanpo geldituko dira inbertsio inmobiliarioak. | Serán consideradas en el cómputo de inversiones aquellas destinadas a maquinaria, equipos, instalaciones y software, quedando explícitamente excluidas de este cómputo las inversiones inmobiliarias. |
| 2.- Udalerriko enpresa munduan jarduerak duen egokitasun edo berritasun mailarengatik: | 2.- Por razón del grado de novedad o conveniencia de la actividad en el marco empresarial del municipio: |
| - Ez dago eta komenigarria da. %100<br>- Badago baina ez da nahikoa %75<br>- Nahikoa zabalduta dago %50 | - No existe y es conveniente 100%<br>- Ya existe pero no suficientemente 75%<br>- Ya existe suficientemente 50% |
| Eskaera bakoitzari ezarri ahal zaion portzentajea ez badator bat, ponderatzeko faktore biak direla eta, bietatik portzentaje altuena ezarriko zaio. | En el supuesto de que no coincida el porcentaje aplicable a cada solicitud por razón de los 2 factores objeto de ponderación, se aplicará el porcentaje mas elevado de los dos. |
| **B.-** Kopuru aldakorra.<br>Aurreko atalean ezarritakoaren arabera lortutako oinarrizko kopuruari, ondoko gehigarriak aplikatuko zaizkio: | **B.-** Cantidad variable:<br>A la cantidad base obtenida según lo establecido en el apartado anterior, le serán de aplicación los siguientes incrementos: |
| - %15 gehituko da, diruz lagundu behar den lanpostua talde hauetako bateko pertsona batek hartzen badu: emakumeak, iraupen luzeko langabeak (Inemen langabe daudenak 18 hiletik gora, kontratatu baino | - Se incrementará en un 15% si el puesto de trabajo a subvencionar es ocupado por una persona perteneciente a alguno de los siguientes colectivos: mujeres, parados de larga duración (inscritos como |

| | |
|---|---|
| lehen) edo 45 urtetik gorakoak.. | desempleados en el Inem con antigüedad mayor a 18 meses inmediatamente antes de su contratación) o mayores de 45 años |
| - %20 gehituko da, diruz lagundu behar den lanpostua %33koa edo hortik gorakoa duen elbarritasun ziurtatua duen pertsona batek betetzen badu, betiere LGS baino pentsio handiagoko onuraduna ez bada. | - Se incrementará en un 20% si el puesto de trabajo a subvencionar es ocupado por una persona con minusvalía certificada del 33% o superior, siempre que no sea beneficiaria de una pensión superior al SMI. |
| - %15 gehituko da diru laguntzen den lanpostuko titularra Arrasateko Udalaren gizarte laguntzen onuraduna izango balitz. | - Se incrementará en un 15% si la persona titular del puesto que se subvenciona fuera beneficiaria de ayudas sociales del Ayuntamiento de Arrasate. |
| - %15 gehituko da enpresa onuradunaren jarduera nagusia nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreari badagokio. | - Se incrementará en un 15% si la actividad principal de la empresa beneficiaria corresponde al sector agropecuario. |
| - %15 gehituko da, enpresa onuradunaren jarduera nagusia merkataritza arloari badagokio | - Se incrementará en un 15% si la actividad principal de la empresa beneficiaria es la de comercio minorista. |
| Gehikuntza portzentaje horiek ezin izango dira metatu, eta kasu bat baino gehiago batera emango balira, eskatzailearentzako onuragarriena ezarriko da. | Dichos porcentajes de incrementos no serán acumulables, y en el caso de concurrencia de varios supuestos se aplicará únicamente el que resulte mas beneficioso para el solicitante de la ayuda. |
| C.- Kenkariak - Arrasateko Udala partaide den laguntza programaren batengatik enpresak jasotako dirulaguntzak gutxituko zaizkio. Eskualdeko Garapen Agentziako EEBko lokalen erabileraren onuradunei dirulaguntzaren %30 a kenduko zaie kontzeptu honengatik | C.- Deducciones - Se deducirán las cantidades percibidas por la empresa a través de otros programas de ayuda en los que participe el Ayuntamiento de Arrasate. A las empresas beneficiarias del uso de locales del CIE de la Agencia de Desarrollo Comarcal se les deducirá un 30% de la subvención por este concepto |
| ***d)Laguntzen mugak .*** | ***d) Límites de las ayudas .*** |
| Lanpostu berriak sortzeagatik enpresei laguntzeko programa honen bidez deitutako dirulaguntzen zenbatekoa 52.000 €-koa da, eta finantzatuko da 2008ko Udal Aurrekontuko 1-07-01-480-721-00-00– partidaren kontura. | Las cantidades a distribuir a través de la presente convocatoria del programa de ayuda a empresas por la creación de puestos de trabajo estarán condicionadas por la disponibilidad presupuestaria de la partida 1-07-01-480-721-00-00- del Presupuesto Municipal 2008, que asciende a 52.000 €. |
| Kasu baten ere ez da emango dirulaguntzarik, deialdi berean enpresa baten sortutako 10 lanpostu egonkor baino gehiagogatik. | En ningún caso se concederán ayudas por más de 10 puestos de trabajo estables creados en una misma empresa dentro de una misma convocatoria. |

| | |
|---|---|
| Dirulaguntza hauen enpresa onuradunak gehienez ere hiru deialditan jaso ahal izango dute dirulaguntza. | Las empresas beneficiarias de estas ayudas lo podrán ser por un máximo de tres convocatorias. |
| Arrasateko Udalak gorde egiten du eman beharreko diru kopuruak murriztu edo deuseztatzeko ahalmena hauen arabera: | El Ayuntamiento de Arrasate se reserva la potestad de reducir o incluso anular las cantidades a conceder en cada caso, en función de: |
| • Enpresak kontzeptu beretsuagatik jasotako beste dirulaguntzak | • Otras ayudas públicas recibidas por la empresa por el mismo o similar concepto. |
| • Lanpostu berriak sortzeagatik enpresei laguntzeko programaren araudi honetan era esplizituan jaso ez diren beste gorabehera batzuk, baina Udalak, programaren koherentzia bermatzearren, garrantzitsutzat jotzen dituenak. | • Otras circunstancias no contempladas de forma explícita en el Reglamento del programa de ayuda a empresas por la creación de puestos de trabajo, que el Ayuntamiento tenga a bien considerar en aras de garantizar la coherencia del programa. |
| **5. Prozedura** | **5. Procedimiento** |
| Gai honi dagozkion erabakiak emateko, prozedura espezifiko moduan hauxe hartzen da: 30/92 Legeak ezarritako administrazio jardunbide komuna, hemen datozen ataletan ezarritako berezitasunekin. | Se asume como procedimiento específico para emitir las resoluciones correspondientes a esta materia, el procedimiento administrativo común establecido por la ley 30/92, con las particularidades establecidas en los apartados que siguen. |
| ***a) Hasiera.*** | ***a) Inicio.*** |
| Interesdunak egindako eskabidearekin hasiko da jardunbidea, eta eskabide hori Arrasatek Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko da indarrean dagoen deialdiaren epean, eta Udaleko Alkate-Lehendakariaren izenean joango da. Aspektu hauek jasoko ditu eskabide horrek: | El procedimiento se iniciará con la solicitud del interesado, que se presentará en el Registro General del Ayuntamiento de Arrasate dentro del plazo de esta convocatoria, e irá dirigida al Sr. Alcalde Presidente de dicho Ayuntamiento. Dicha solicitud recogerá los siguientes aspectos: |
| ▪ Enpresa eskatzailearen izena.<br>▪ Harremanetarako pertsonen datuak<br>▪ Dirulaguntzaren berariazko eskabidea, deialdia aipatuz.<br>▪ Dirulaguntza eskatzen deneko lanpostuen titulardunen izenak. | ▪ Identificación de la empresa solicitante.<br>▪ Datos personales de las personas de contacto.<br>▪ Solicitud expresa de la ayuda, haciendo referencia a esta convocatoria.<br>▪ Identificación de los titulares de los puestos de trabajo por los que se solicita la ayuda. |
| ***b) Erantsi beharreko dokumentazioa*** | ***b) Documentación a adjuntar*** |
| **b.1) orokorra** | **b.1) Con carácter general** |
| ▪ Enpresa proiektuaren deskribapena | ▪ Descripción del proyecto empresarial. |
| ▪ Inbertsioen plana eta inbertsio facturen kopiak. | ▪ Plan de inversiones y copias de facturas de inversión. |

| | |
|---|---|
| ▪ Enpresaren bezeroen zerrenda eta horiei azken 12 hiletan saldutakoen egiaztagiria, hala dagokionean. | ▪ Relación de clientes de la empresa y justificante de las ventas realizadas a los mismos en los últimos 12 meses, cuando proceda |
| ▪ Dirulaguntza eskatzen deneko lanpostuen titulardunen NAren kopia. | ▪ Copia del DNI de las personas titulares de los puestos por los que se solicita la ayuda. |
| ▪ Bankuko kontuaren titulartasun agiria. | ▪ Certificado de titularidad de cuenta bancaria. |
| ▪ Dirulaguntza eskatzen deneko lanpostuen kontratuen kopia, hala dagokionean. | ▪ Copia de los contratos por los que se solicita la subvención, cuando proceda. |
| ▪ Sozietatearen eraketa eskrituraren, estatutuen eta Merkataritza Erregistroan izena emandako agiriaren kopiak, hala dagokionean. | ▪ Copias de la Escritura de Constitución de la sociedad, Estatutos e Inscripción en el Registro Mercantil, cuando proceda. |
| ▪ Gizarte Segurantzako erregimenean altan egotearen egiaztagiria | ▪ Justificante de alta en el régimen correspondiente de la Seguridad Social. |
| ▪ IEZn alta egiaztagiria | ▪ Justificante de alta en el IAE. |
| ▪ Jardueraren edo lokala irekitzeko lizentzia, hala dagokionean. | ▪ Licencia municipal de actividad o de apertura de local, según proceda. |
| ▪ Dirulaguntza eskatzen deneko langileen bizitza laboralaren ziurtagiria. | ▪ Certificado de vida laboral de los/las trabajadores/as por los que se solicita subvención |
| ▪ Dirulaguntza eskatzen deneko langile bakoitzaren adierazpen erantzulea, oraingo enpresan sartu aurreko 12 hiletan jarduera beran edo antzekoan, banaka edo sozietatean, titular moduan jardun ez izanari buruz. | ▪ Declaración responsable de cada trabajador por el que se solicita subvención, relativa a no haber ejercido como titular, individualmente o en sociedad, en la misma o similar actividad en los 12 meses anteriores a su incorporación en la actual empresa. |
| ▪ Zerga obligazioetan eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen ziurtagiri eguneratuak. Ordainketako egoera erregularrean egongo da, atzerapena lortu duen enpresa eta atzeratutako zorrari buruz agiriz kreditatzen duena. | ▪ Certificados actualizados de estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social. Se entenderá en situación regular de pagos la empresa que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto a la deuda aplazada. |
| ▪ Adierazpen erantzulea, enpresak eskatu edo jaso dituen beste dirulaguntza batzuei buruz. | ▪ Declaración responsable referente a otras subvenciones que haya solicitado o percibido la empresa. |
| ▪ Arrasateko Udalak, beharrezko iritziz gero, kasu bakoitzean eska lezakeen beste dokumentazio gehigarri bat. | ▪ Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate, estimándola necesaria, pudiera requerir en cada caso. |

| | |
|---|---|
| **b.2) Lehendik dauden enpresak** | **b.2) Empresas ya existentes.** |
| Aurreko dokumentazioaz gain: | Además de la documentación anterior: |
| ▪ Plantillaren gehikuntza garbiaren justifikazioa; dirulaguntza eskatzen den deialdiaren aurreko 3 urteetako TC1 eta TC2 agiriak ekarriko dira. | ▪ Justificación del incremento neto de plantilla mediante la aportación de los TC1 y TC2 de los 3 años anteriores a la convocatoria para la que se solicita la ayuda. |
| **b.3) Merkataritza enpresak.** | **b.3) Empresas dedicadas al comercio minorista** |
| b.1 ataleko dokumentazioaz gain: | Además de la documentación señalada en el apartado b.1: |
| ▪ Beste merkataritza establezimendurik edukitzekotan, horren egoerari buruzko dokumentazioa:<br>- IAEko Alta mantentzearen agiria<br>- TC1 eta TC2 azken urtealdikoa | ▪ En los casos de empresas dedicadas al comercio minorista que ya contaban con otros establecimientos comerciales, la siguiente información relativa a dichos establecimientos:<br>- Certificado de mantenimiento del alta en IAE.<br>- TC1 y TC2 del último ejercicio. |
| ***c) Erabakia*** | ***c) Resolución.*** |
| ▪ Eskatzen den denboran eta eran eskabideak aurkeztu eta gero, bi hileko epean erabakiko du Udalak, eta erabaki horren berri emango dio intereseko enpresari.. | ▪ Una vez presentadas las solicitudes en tiempo y forma requeridos, el Ayuntamiento resolverá en el plazo de 2 meses y dará a conocer dicha resolución a la empresa interesada. |
| ***d) Hitzarmenak sinatzea*** | ***d) Formalización de convenios.*** |
| Eskaera aurkeztu eta onartzen diren enpresek hitzarmen bat sinatuko dute Udalarekin, eta horren bidez konpromiso hauek hartuko dituzte: | Las empresas cuyas solicitudes resulten aprobadas formalizarán un convenio con el Ayuntamiento mediante el cual se comprometerán a: |
| ▪ Gutxienez 3 urtean mantentzeko haien jarduera, dirulaguntza ematea erabakitzen den unetik. | ▪ Mantener su actividad durante un mínimo de tres años a partir del momento en que se resuelva conceder la subvención. |
| ▪ Gutxienez 3 urtean mantentzeko langileen plantilla, dirulaguntza ematea erabakitzen den unetik. | ▪ Mantener la plantilla de trabajadores durante un mínimo de tres años a partir del momento en que se resuelva conceder la subvención. |
| ▪ Aurreko gorabeheretan aldaketrik egonez gero, Arrasateko Udalari adieraztea. | ▪ Informar al Ayuntamiento de Arrasate de cualquier eventualidad que afectara a alguna de las circunstancias anteriores. |

| | |
|---|---|
| ▪ Abal bat aurkeztea, aitortutako dirulaguntzaren kopuru besteko, dirulaguntza hori jasotzetik datozen obligazioak behar bezala bete daitezen bermatzeko. | ▪ Presentar un aval por la cantidad equivalente a la subvención concedida, que garantice el correcto cumplimiento de las obligaciones derivadas de la recepción de dicha subvención. |
| Hitzarmena sinatuko da dirulaguntza aitortzen duen Udal akordioa jakinarazten denetik 30 eguneko epe barruan. | El convenio deberá firmarse en el plazo de 30 días desde la notificación del acuerdo municipal de concesión de la subvención. |
| ***e) Ordaintzeko era.*** | ***e) Forma de pago.*** |
| Hitzarmena sinatutakoan, 30 egun naturaleko epean ordainduko du dirulaguntza Udalak. | Una vez firmado el Convenio, el Ayuntamiento procederá al pago de la subvención en el plazo de 30 días naturales. |
| ***f) Espedienteen jarraipena*** | ***f) Seguimiento de expedientes.*** |
| ▪ Dirulaguntza eman zeneko urtealdiaren hurrengo urtean, eta hurrengo hiru urteetan, enpresa onuradunek dokumentazio hauxe aurkeztuko diote Udalari: | ▪ Las empresas beneficiarias presentarán al Ayuntamiento dentro del año siguiente al del ejercicio en el que les fue concedida la subvención, y durante tres años consecutivos, la siguiente documentación: |
| 1) Urtealdi hartako Jarduera Ekonomikoaren Gaineko Zerga ordaindu izanaren egiaztagiria, edo jarduera altan mantendu izan deneko egiaztagiria.<br><br>2) Dirulaguntza eman zeneko lanpostuen mantenuaren egiaztagiria, kotizatzen den Gizarte Segurantzako erregimenari dagokion eran:<br><br>- Urte horretako TC1 eta TC2, Erregimen Orokorrerako.<br><br>- Urte horretako hirugarren hiruhilekoaren osteko bizitza laboralaren ziurtagiria, Autonomoen Erregimenerako.<br><br>3) Ogasunean eta Gizarte Segurantzan egunean egotearen ziurtagiriak.<br><br>4) - Arrasateko Udalak, beharrezkotzat iritzirik, kasuan kasuko eska dezakeen beste edozein dokumentazio gehigarri. | 1) Justificante de pago del Impuesto de Actividades Económicas del año en curso o certificado de mantenimiento de dicha actividad..<br><br>2) Justificante del mantenimiento de los puestos de trabajo por los que se concedió la subvención, según proceda en función del régimen de Seguridad Social en el que se cotice:<br><br>- TC1 y TC2 del año en curso, para Régimen General.<br><br>- Certificado de vida laboral posterior al tercer trimestre del año en curso, para Régimen de Autónomos.<br><br>3) Certificado de estar al corriente de pagos con Hacienda y Seguridad Social.<br><br>4) - Otra documentación adicional que el Ayuntamiento de Arrasate, estimándola necesaria, pudiera requerir en cada caso. |
| Enpresa onuradunak aipatutako dokumentazioa ekarriko dio Arrasateko Udalari hurrengo urteko apirilaren 30 baino lehen. | La mencionada documentación será entregada por la empresa beneficiaria al Ayuntamiento de Arrasate, antes del 30 de abril del año siguiente al ejercicio objeto de la justificación documental. |

| | |
|---|---|
| ***g) Gorabeherak*** | ***g) Incidencias.*** |
| Enpresa onuradunek laster baten adierazi behar diote Arrasateko Udalari,dirulaguntza eman zeneko unean enpresa horiek biltzen zituzten baldintzak neurriren batean aldatuz gero ezer. | Las empresas beneficiarias deberán informar con prontitud al Ayuntamiento de Arrasate sobre eventuales cambios que supusieran alterar en alguna medida las condiciones reunidas por dichas empresas en el momento en el que les fue concedida la subvención. |
| ***h) Bete ez direnak eta itzulketak*** | ***h) Incumplimientos y reintegros.*** |
| Programa honi buruz Arrasateko Udalarekin hitzartutako obligazioaren bat bete ezean enpresa onuradunak, Arrasateko Udalak errekurritu ahal izango du emandako dirulaguntzaren zati bat edo osoa itzultzea, dirulaguntza hau emateko enpresak sinatutako abala exekutatuz. | Si la empresa beneficiaria incumpliese alguna de las obligaciones convenidas con el Ayuntamiento de Arrasate en relación al presente programa, el Ayuntamiento podrá recurrir al reintegro parcial o total de la subvención concedida, mediante la ejecución del aval depositado por la empresa, previsto en las presentes bases. |
| ***j) Tramitazioaz arduratuko den unitate administratiboa.*** | ***j) Unidad administrativa encargada de la tramitación*** |
| Programa honi dagozkion espedienteak tramitatzeaz Enplegu eta Garapen Ekonomikoko unitate administratiboa arduratuko da. | Los expedientes relativos a este programa serán tramitados por la unidad administrativa de Empleo y Desarrollo Económico. |
| **6.-Klausula gehigarria** | **6.- Clausula adicional** |
| Oinarri espezifiko hauetan jasotzen ez diren gai guztietan aplikagarria izango da Udalbatzarrak 2006ko otsailaren 27an onartutako enpresentzako laguntza programa arautzen duen Erregelamendua; eta deialdiaren oinarri-arau orokorretan ezarritakoa. | En todo lo no recogido expresamente en las presentes bases específicas, se estará a lo dispuesto en el Reglamento regulador del programa de ayuda a empresas aprobado por el Ayuntamiento Pleno con fecha 27 de febrero de 2006, así como a lo establecido en las bases generales de la convocatoria. |
| Halaber, Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantzan eta 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari atxikiko zaio. | Asimismo, regirán la Ordenanza Municipal de Subvenciones y la Ley 38/2003, General de Subvenciones y demás disposiciones legales concordantes. |